

**Zer eguraldi egiten du hor?**

–Bai?

–Egun on, Diego! Zer moduz?

–Egun on, Alba! Bada, bueno, hementxe, tximiniaren ondoan! Negua iritsi da, e!  
Zer hotza! Ufa! Zer eguraldi egiten du hor?

–Bai, hemen ere hotz egiten du!

–Hemen elurra ari du oraintxe!

–A, bai? Elurra ari du? Hemen ez!

–Baina hotz egiten du hor, ezta?

–Bai, bai! Hotz handia egiten du, baina elurrik ez. Beraz, arratsaldean, Florida parkera joango gara eta izotz gainean patinatuko dugu.

–Jope, zer zortea! Oso ondo pasa! Nik liburu bat irakurriko dut tximiniaren ondoan!

–Aizu, bada, ez da plan txarra!

–Ez da plan txarra, ez!

---

–Aupa, Teresa!

–Kaixo, Iñigo! Zer moduz?

–Bada, oso ondo! Oraintxe kalera goaz. Zerbait hartuko dugu terraza batean!

–Terraza batean? Hor eguraldi ona egiten du, orduan!

–Bai, hemen eguzkitsu dago eta ez dabil haizerik!

–Zer zortea! Guk egun osoan etxean egon beharko dugu!

–Hara! Zergatik? Euria ari du?

–Euria? Ez, ez. Hemen sekulako beroa egiten du! Berrogeita lau gradu dauzkagu!

–Ene! Berrogeita lau?! Jo, bada, hemen eguzkitsu dago, baina tenperatura ona daukagu: hogeita bost gradu.

–Itsaso ondoan beti freskoago! Ai... Zuek ondo pasatu! Eta nik, bada... Film bat ikusi beharko dut etxeko sofan! Zein gomendatzen didazu? Kar-kar!